

Bertsolaritzari buruzko ikerkuntzak orain arte (ikuspegi berri baten arrasto zaharrak)

(Research on bertsolarism up to the present day (old vestiges of a new position))

Garzia, Joxerra
Euskal Herriko Unib.
Gizarte eta Komunikazio Zientzietako Fak.
Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitate Dept.
Sarriena z/ g
48940 Leioa

Bertsolaritzari buruzko orain arteko ikerketen errepaso egiten da txosten honetan. Ez, ordea, errepaso soil eta neutroa, baizik eta errepaso interesatua. Alegia, bertsolaritza -orohar, eta bereziki bat-bateko bertsolaritza- ikertzeko erabili izan diren ikuspuntuak azken urteotan ikerlarien artean kontsentsu zabala lortu bide duen marko teoriko berriaren argitan errepasatzen dira. Marko teoriko berri hori, labur esanda, erretorikarena da: poetikarena ikuspegitik erretorikarenera pasatzea proposatzen da, beraz. Markoaren berritasuna azpimarratu izan da orain arte, normala ere badenez. Txosten honetan, berriz, marko teoriko horren sustraia bistaratu nahi dira. Manuel Lekuonatik hasi, Leizaola, Juan Mari Lekuona, Basarri, Amuriza, Zulaika, Zavala, Egaña, Sarasua... dira sustraion adarretako batzuk. Etabaidagai moduan aurkezten da, bestalde, txostena. Helburu bikoitza du: batetik, marko berriaren egokitasuna eztabaidatzea; bestetik, berriz, alde zureko ekarpenetan sakontzea.

Giltza-Hitzak: Bat-bateko bertsolaritza. Poetika eta erretorika. Ahozkotasanaren ikerkuntza.

En la presente ponencia se hace un repaso de los estudios realizados sobre el bersolarismo hasta el presente. No se trata, sin embargo, de un mero repaso, de un repaso neutro, sino de un repaso interesado. Es decir, que los puntos de vista utilizados en la investigación del bersolarismo -en general, y el bersolarismo improvisado en particular- se repasan a la luz del nuevo marco teórico que durante estos últimos años parece haber logrado un amplio consenso entre los investigadores. Este nuevo marco teórico, dicho con brevedad, corresponde al de la retórica: se propone, por lo tanto, pasar del punto de vista de la poética al de la retórica. Hasta ahora se ha resaltado la novedad del marco, como es normal. En la presente ponencia, en cambio, se pretende mostrar su raíces. Empezando por Manuel Lekuona, Leizaola, Juan Mari Lekuona, Basarri, Amuriza, Zulaika, Zavala, Egaña, Sarasua... son algunas de las ramificaciones de estas raíces. Por otra parte, la ponencia se presenta a modo de tema de discusión. Con un doble objetivo: por una parte, la discusión de la idoneidad de este nuevo marco; por otra, la profundización en las aportaciones previas.

Palabras Clave: Bersolarismo improvisado. Poética y retórica. Investigación de la oralidad.

Dans cet exposé, on revoit les études réalisées sur le bersolarisme jusqu'à présent. Il ne s'agit pas, pourtant, d'une simple révision, d'une révision neutre, mais bien d'une révision intéressée. C'est-à-dire que les points de vue utilisés dans la recherche du bersolarisme -en général, et le bersolarisme improvisé en particulier- se révisent à la lumière du nouveau cadre théorique qui semble avoir obtenu un vaste consensus parmi les chercheurs au cours de ces dernières années. Ce nouveau cadre théorique, brièvement dit, correspond à celui de la rhétorique: il se propose, par conséquent, de passer du point de vue de la poétique à celui de la rhétorique. Jusqu'à maintenant on a souligné la nouveauté du cadre, comme c'est normal. Dans cet exposé, en revanche, on tente de montrer ses racines. En commençant par Manuel Lekuona, Leizaola, Juan Mari Lekuona, Basarri, Amuriza, Zulaika, Zavala, Egaña, Sarasua... sont quelques-unes des ramifications de ces racines. D'autre part, l'exposé se présente en guise de discussion. Avec un double objectif: d'une part, la discussion de l'idoneité de ce nouveau cadre; d'autre part, l'examen approfondi des apports préalables.

Mots Clés: Bersolarisme improvisé. Poétique et rhétorique. Recherche de l'oral.

XV Congreso de Estudios Vascos: Euskal zientzia eta kultura, eta sare telematikokoak = Ciencia y cultura vasca, y redes telemáticas = Science et culture basque, et réseaux télématiques = Basque science and culture, and telematic networks (15. 2001. Donostia). - Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2002. - P 789-805. - ISBN: 84-8419-906-1.

O. IKUSPEGI BERRIAREN BERRI LABURRA

Bertsolaritzaren historian lehen aldiz, badirudi ikerlari gehienak ados gaudela erabili beharreko marko teorikoarekin. Adostasun hori, jakina, behin behinekoa da: darabilgun markoak kezkatzen gaituzten alderdiak hobeto ulertzeko balio digun bitartean.

Marko berria, berriz, 1999an EHUan aurkeztu nuen tesian deskribatzen dudana da, gutxi gorabehera. Ezinezkoa da marko berri horren azalpen zehatza hemen egitea. Aipa ditzadan, beraz, besterik gabe, marko horren nondik-norako behineak:

0.1. Bertsoa aztertze metodoari dagozkionak

1. Bat-bateko bertsoa genero berezia da, eta azterbide edo metodoa ere berezia behar du, propioa. Bat-bateko bertsoa eta bertso idatzia metodo bat bederaz aztertzeak ondorio makurrak ditu.

2. Bat-bateko bertsoaren generoa erretorikoa da, erretorika jardun persuasibo moduan ulerturik, Aristotelesek lehenik eta XX. mendeko erretorika berriek (Argudiatzearen teoriak, Pragmatikak eta Berbaldiaren Analsiak, besteak beste) erakutsitako bidetik. Bertsoa aztertze metodoa zabaldu egin behar da, poetikatik erretorikara zabaldu, hain zuzen, bertsoa bere osotasunean ulertuko bada. Azterketa poetikoaren lekua, berriz, ikuspegi erretoriko horren baitan ulertu behar da. Orain arteko azterketa gehienak, poetikaren ikuspegitik egin baitira, baliagarriak dira erretorikaren ikuspegi zabalago honetarako ere.

3. Bertsoa –bertso bakoitza– hasi eta buka estrategia jakin batzuen arabera egituratu beharreko jardun-unitatetzat pertzibitzen dute bertsolariek. Bertsoa da, beraz, bat-bateko bertsogintzaren unitate erretoriko nagusia, berbaldia, baita bertso hori berbaldi zabalago baten (bertsoaldiaren, bertso-saioaren) baitan doanean ere.

4. Bat-bateko bertsogintzan, testuak adineko garrantzia du testuinguruak, hortixe sortzen baititu bertsolariak bere estrategia eta baliabideak. “Testuinguru”, ordea, kontzeptu zabalegia da ikerketarako. Zehaztu eta doitu beharra dago, beraz, azterketarako baliagarri izango bada. Bi osagai bereizi behar dira testuinguruan: a) inguru-egoera (saioa bera, *performancea*, bere elementu guztiekin), eta b) inguru-testua (igorleak eta hartzaileek partekatzen dituzten balio eta erreferentzien mundua). Inguru-testuaren eta inguru-egoeraren zomelakoak erotik baldintzatzen du bertsogintza.

0.2. Bat-bateko bertsogintzaren historiari dagozkionak

1) Bat-bateko bertsogintzaren historia oso eskas dokumentatua dago 1960a arte, bat-bateko

bertso korpusari dagokionez, behintzat. Data hori hartu behar litzateke bat-bateko bertsogintzaren historiaren abiapuntutzat, gainerako guztia historiaurretzat joz, oraingoz.

2) Ez testua ez inguru-egoera dira bertsolaritzaren historian aroak bereizteko irizpide egokiak. Bat-bateko bertsogintzan aro diferenteak zehazterakoan, aitzitik, inguru-testuaren trinkotasuna dateke irizpiderik baliagarri eta zehatzena, aldi bateko inguru-testua nolako halakoa baita aldi horretako bertsogintzaren funtsa. Hiru faktoreok eragiten dute aldi aldi inguru-testuaren trinkotasunean: a) egoera sozio-politiko-kulturalak, b) bertsolaritzaren arrakastak eta c) bertsolari zein entzuleen heziketa-mailak.

3) Gaur egungo bat-bateko bertsogintza inguru-testu ezpalduko bertsogintza da, eta Amurizarekin hasten da, 1980an. Urrutiramendua eta pindartasuna ditu ezaugarri behinen. Laurogeita hamareko hamarkadan sakondu baino ez da egiten inguru-testuaren ezpalketa, eta harekin batera urrutiramendua eta pindartasuna. Arrakastaren aldetik, berriz, 1991-1993 urteak dira gailurra, bertsomaniaren urteak.

0.3. Aplikazio didaktikoak

1) Bertsoa, neurri egokiko ahozko berbaldi inprobisatua den aldetik, abiapuntu ezin hobea da eskolan ahozko komunikazio-gaitasuna lantzeko, baita bertsozkoak ez diren jendaurreko jardunetan ere, hala nola irati eta telebistakoetan.

2) Gaur egungo eskola-sisteman nagusi den metajardunari gabe, komunikazio-gaitasunak lantzeari eman behar lioke eskolak lehentasuna. Bertso-berbaldi egokiak hautaturik, berbaldion eragina gozatu, gozamen hori eragiteko bertsolariak erabili dituen baliabideez jabetu eta antzeko baliabideak erabiliz bere berbaldiak antolatzen jardun behar luke ikasleak etengabe. “Ahofitza” deitzen diogu bertsoa abiapuntu harturik ahozko komunikazio-gaitasuna hiru urratsotan (gozatu, jabetu, jardun) lantzeko pauta eskaintzen duen unitate didaktikoari.

3) Ahozko –eta idatzizko– komunikazio-gaitasuna lantzea hartu behar luke hezkuntza-sistemak euskara-eskolen ardatz. Gaitasunon lanketak ez luke “benetako” jardunaren apaingari edo eskolaz kanpoko jarduna izan behar.

1. BERTSOLARITZARI BURUZKO ORAIN ARTEKO AZTERKETAK

Ez dira gutxi orain arte bertsolaritzaren inguruan argitaratu diren obrak, nahiz denak ez diren gure ikuspegiarako berdin interesgarri. Hiru multzotan sailka ditzakegu obrok:

1. Biltze lana. Bertso bildumak, biografiak, historia...

2. Bertsolaritzaren alderdi teknikoei buruzko lanak: metrika, errima eta abar:

3. Bertsorearen alderdi poetiko-erretorikoei buruzko lanak.

Hirugarren sailekoak dira hemen hartu dugun ikerbiderako interesgarrien, baina beste bi sailetakoei buruz ere hitz erdiren bat esan nahi genuke, zeharka bada ere baliagarri baitira sailotako obrok.

1.1. Biltze lanak

1.1.1. ANTONIO ZAVALA

Antonio Zavalaren obra nabarmentzen da oroz gainetik sail honetan. 1961ean *Auspoa* Sailari ekin zionetik, etengabeko biltze-lanean ari da Zavala, eta bertsolaritzari eskeinitako aleak ez dira gutxi. Xenpelar, Txirrita eta beste hainbat bertsolariren bertso-korpusa bildu izanaren meritua Zavalarena da oso-osorik. *Auspoaz* kanpokoetan, Bilintxi eskainitako alea aipatuko genuke¹.

Biltze lanaz gainera, bertsolaritzaren historia ere jorratu izan du Zavalak, urteetan erreferentzia ia bakar izan den *Bosquejo de historia del bertsolarismo* liburuan.² 1963ko udaberriean Donostiako E.U.G.Tetan emaniko lau hitzaldien testua da, berez, liburua. Harrigarriro dokumentatua, erreferentzia ezinbestekoa da, oraindik ere, liburua. Zavalaren lanen antologiaren lehen liburukian oso-osorik argitaratua, horixe da³ gaur egun argitalpenik eskuragarriena.

Auspoaren Auspoa antologia horretan bertan, hainbat bertsolariri buruzko hitzaldiak ere jasotzen ditu Zavalak (Lasarte, Pello Errota, Otaño, Bilintx...), beti ere erigore eta zehaztasun handiz. Hemen darabilgun asmorako zuzenean baliagarri ez badira ere, Zavalaren lanik izan ez balitz zer aztertunik ere ez genuke izango.

1.1.2. JOAN MARI LEKUONA

Joan Mari Lekuonarena izan da urteetan bertsolaritzaren historia egiteko modu paradigmatikoa. Haren "Bertsolariak historian: sailkapen saioa"⁴ izenburuko lanekoa da ikuspegi hedatuen eta onartuena: Proposamena orriotan egiten bada

ere formalki, interesgarriak dira, orobat, obra horretan bertan "Bertsolaritza"⁵ eta "Jendaurreko bertsolaritza"⁶ atalak.

Biltze lan hutsetik harago doa Juan Mari Lekuona aipatu obran. Bertsolaritzaren azterketarako irizpide zehatzak proposatzen ditu, eta irizpideon edukiarekin beti bat ez bagatoz ere, irizpideak finkatu beharraz ohar arazi izana diogu zor.

Baina biltze hutsetik haragoko kontu horiek aurrerago aztertuko ditugu xeheki (1.1.13 epigrafean).

1.1.3. JOANITO DORRONSORO

Bertsotan izenburuarekin argitaratutako Dorronsoren bi liburuak⁷ erabili ez dituen bertso-aztertzailerik ez da seguruenik izango. Lehen alean, 1936a bitarteko bertsolaritza jasotzen du. Bigarrenean, beriz, urte hartatik 1980a bitartekoa. Argi eta garbi bereizten ditu bat-bateko bertsoak eta bertso jamiak, eta argitalpena kasete eta guzti zetorren, gainera. Aldian aldiko bertsolari puntakoenen jiran antolatzen du Dorronsorok 1936a arteko bertsolaritzaren historia (Fernandoren garaia, Elzahunena, Xenpelarrena, Bilintxena, Pello Errotarena, Txiritarena). 1936-1980 garaikoa, beriz, honako atalotan banaturik eskaintzen du: Bertso Txapelketa Nagusiak, Bakarkako bertsoak, Ofiziolakoak eta Bertsopaperak, atal bakoitzeko bertsolariak alfabetoaren arabera kokaturik.

Dorronsorearen beste biltze lan aipagarri eta baliagarria haren *Bertso-doinutegia* da⁸: Bertso doinuak bildu eta bataiatzeaz gainera, doinuen ezauzgarrii buruzko iruzkin jakingarriz hornitua dago liburua. Doinuen izendapena egiteko darabiltzan irizpideekin guztiz bat ez bagatoz ere (ikus aurrerago 10.1. epigrafea, "Bibliografiari buruzko oharra"), lan eskergea eta baliagarria egina du Dorronsorok.

1.1.4. GORKA AULESTIA

Gorka Aulestiaren *Bertsolarismo*⁹ liburua da, Zavalaren *Bosquejo*arekin batera, kanpotarrek –eta euskal herritar erdaldunek– bertsolaritzaz zerbait eskatzen digutenean eskaini dezakegun material apurretakoa. Irizpideetan-eta ekarpen handirik ez badakar ere, hutsune nabarmen bat bete du Aulestiaren obrak.

1. ZAVALA, Antonio (1978), *Bilintx, Indalecio Bizcarrondo, 1831-1876*, Donostia, Donosti Aurrezki Kutxa.

2. ZAVALA, Antonio (1964), *Bosquejo de historia del bertsolarismo*, Zarauz, Auñamendi.

3. ZAVALA, Antonio (1996), *Auspoaren auspoa I*, Oñartzun, Sendoa (Auspoa-238), 109-255 orr.

4. LEKUONA, Juan Mari (1982), *Ahozko euskal literatura*, Donostia, Erein, 109-123 orr.

5. *Ibidem*, 91-109 orr.

6. *Ibidem*, 123-139 orr.

7. DORRONSORO, Joanito (1981) eta (1988).

8. DORRONSORO, Joanito (1997), *Bertso-doinutegia*, Donostia, EHBE (Lau liburuki).

9. AULESTIA, Gorka (1990), *Bertsolarismo*, Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia.

Horrez gainera, ingelesez ere argitaratua dago liburua¹⁰, eta horrek are baliagarriago egiten du, nabarmena baita euskaraz ez dakitenei bertsolaritza zer den azaltzeko orduan dugun gabezia.

1.1.5. PATRI URKIZU

Etor argitaletxeak Bertsolaritzaren Historia luze eta sakon bat egiteko asmoa hartu zuen 1990ean, eta gure esku utzi zuen egitasmoa. Lan talde zabal bat osatu genuen, tartean Amuriza, Inazio Mujika Iraola, Patri Urkizu, Jon Aurre, Jesus Mari Mendizabal eta Juan Garzia zirela. Asmoa zera zen: ordu arteko material guztia bildu, txukundu beharrekoa txukundu, osatu beharrekoa osatu, iritzi kritikoz hornitu, eta milana orrialdeko hamabi libururi argitaratzea.

Tamalez, argitaletxeak lur jo zuen, eta egitasmo zabal hartako lehen bi liburukiak baino ez ziren argitara eman. Patri Urkizuk ifarraldeko bertsolaritza eginikoak, hain zuzen¹¹.

Bertso idatziak dira Urkizuk bere lan erraldoi horretan bildutako gehien-gehienak. Eztabaida liteke Detxepare eta Oihenarten neurtitzek Urkizuk eskaintzen dien lekua merezi ote duten bertsolaritzaren historian. Hala ere, Urkizuren ekarpenak egin zaion baino harrera hobea merezi zuelakoan gaude, asko eta asko baitira ezagutzera ematen dituen hemeretzigarren mendea baino lehenagoko bertsopaperak.

1.1.6. XABIER AMURIZA

Etor argitaletxearen egitasmo hartan, Bizkaiko bertsolaritzaren korpua osatzeko ardura eman genion Amurizari. Lan eskerga egin zuen Amurizak, direnak eta ez direnak miatuz. Zorionez, material hori argitaratzea lortu zuen handik urte batzuetara, *Bizkaiko Bertsogintza I eta II* izeneko bi liburuki marduletan¹².

Bertso kontuan Bizkaia uste zena baino aberatsagoa dela erakusten du Amurizaren obra horrek, ordu arteko bertsolaritzaren historietan nabarmena zen hutsunea betez.

Amurizak berak bi saio egin ditu geroztik bertsolaritzaren historia osoago eta lurraldetasunez

10. AULESTIA, Gorka (1995), *Improvisational Poetry from the Basque Country*, (itzulpena: Lisa Corcostegui eta Linda Whitek), Reno, Nevada, University Press.

11. URKIZU, Patri (1991), *Bertsolaritzaren Historia 1. Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak I Anonimoak*. Donostia, Etor; eta *Bertsolaritzaren Historia 2. Lapurdi, Baxanabarre eta Zuberoako bertso eta kantak II 1545-1900*. (Bilduma osoaren arduraduna: Joxerra Garzia).

12. AMURIZA, Xabier (1995b), *Bizkaiko Bertsogintza I, Izen-gabeak*, Bilbo, Kulturgintza. Bizkaiko Bertsolari Elkarte a-Itinkoketa S.L.; eta AMURIZA, Xabier (1996c), *Bertsogintza II, Izendunak*, Bilbo, Kulturgintza-Bizkaiko Bertsosale Elkarte a-Zenbat Gara Kultur Elkarte a.

orekatuagoa eskaintzeko. Mugatu samarra da bata, *Egin* egunkariak eskaturik egina¹³: Bestea, beriz, zabalagoa, *Elhuyarren* eskariz eta CDrom formatoan¹⁴.

Bertso eta koplak ordu arte ezezagun asko eta asko bildu ditu Amurizak bere obrotan –Bizkaiko bertsolaritzari buruzkoetan batez ere–, eta, nahiz berez biltze lanak diren, bestelako kontsiderazio interesgari askoak dakartza. Interesgarrienetakoa, koplagingintza eta bertsogintza arteko desberdintasun erotikakoari buruzko honako hau:

Koplaritzan sartzen denak bertsolaritzako pentsakerak atean utzi behar ditu. Koplak ez da bertso labur bat, luzeago baten erdia edo laurdena, hamar urteko haurren hogeikoaren erdia edo berrogeikoaren laurdena ez den bezala. Luze-laburrak generoa asko erabakitzen du, jakina. Koplak oso laburra izanik, ez du betelanik jasaten. Egongo dira bertsolaritzaren burutik osatuak ere, ez bait dira bata bestetik hain urrun dauden generoak, baina bi puntuko edo gehienez hiruko kopletan, betelanerako tokirik ez dago. Hortik gorakoak ez dira koplak, bertsoak baizik, batzutan muga berezlea zehatzegia ez bada ere¹⁵.

Bertso genero berezia dela ari gara hemen aldeztzen, eta genero berezi hori argi eta garbi bereizten lagungarri diren azalpen guztiak argigarri iruditzen zaizkigunez, hala gertatu zaigu Amurizaren aipu horretakoa ere.

1.1.7. PABLO JOSE ARISTORENA

Amurizak Bizkaiko bertsogintzarekin egin duen pareko lana egin zuen Pablo Jose Aristorenak Nafarroakoarekin, Iparralde baxe dela¹⁶. 1991ko Bertso Egunaren kariaz argitaratu zen liburua, baina Aristorenarenak aise gaingitzen ditu horrelako liburu enkarguzkoek izan ohi duten maila, Nafarroako bertsolaritzaren historia aski oso, dokumentatu eta interesgarria eskeintzen baitu liburua.

1.2. Bertsoaren alderdi teknikoari buruzko lanak

Estrategia poetiko-erretorikoetan eragina duten heinean baino ez zaizkigu hemen bertsoaren alderdi teknikoak interesatzen. Ikerlan honetan zuzenki baliatu ez baditugu ere, ez genituzke alderdiorik buruzko obra batzuk aipatu gabe utzi nahi, ezinbesteko *background* edo aurre-ezagutza moduko bat osatzen baitute.

13. AMURIZA, Xabier (1996a), *Bertsolaritzaren historia*, Donostia, Orain.

14. AMURIZA, Xabier (1997), "Bertsolaritzaren historia" in ELHUYAR (1997), *Bertsoen Mundua*, (CDrom), Usurbil, Elhuyar.

15. AMURIZA, Xabier (1995b), 19. or.

16. ARISTORENA, Pablo Jose (1991), *Nafarroako Bertsolaritza*, Iruñea, Gobierno de Navarra.

Patxi Altuna¹⁷, Manuel Lekuona¹⁸, Juan Mari Lekuona¹⁹, Patri Urkizu²⁰ eta Pello Esnal²¹ dira, alde horretatik, aipatu gabe utzi eziniko horiek.

Manuel Lekuonarena 1918koa da, benetan lan berezi eta bitxia. Hona hemen, Lekuonaren beraren hitzetan, haren lanaren emaitza nagusia:

Dedúcese de aquí, que la unidad métrica de aquel verso no es la sílaba, que aquel verso no se mide en sílabas, sino valiéndose de otra unidad, en la cual, por precisión, dos sílabas equivalgan a una, y una equivalga a dos. Es decir, que nos hallamos en pleno terreno, en el que la cantidad silábica es variable, y en el cual no se puede prescindir de tomar por unidad métrica el pie rítmico²².

Aditu gehien-gehienek kontra doa horrako horretan Manuel Lekuona. Bertsolariei dagokienez, behintzat, gaur egun ez du inork zalantzan jartzen silabikoa dela bertsoaren metrika. Guk dakigula, behin bakarrik berpiztu da kontu horri buruzko eztabaida, eta arazoak guztiz praktikoengatik, gainera. 1986ko txapelketaren atarikoaren, Bertsolari Elkarteak antolatutako lehen txapelketaren atarikoaren, alegia. Zarautzen egin zen bilera batean, bertsolari batek galdetu zuen ea epaileek zigortzeko asmorik ote zuten berez zortziko txikiko diren zenbait doinutan 7/6 silaba erabili ordez 8/6 silaba erabiltzea. Bai-baitira bietara kanta litezkeen doinuak, eta doinuak markatzen dio bertsolariari aldiko zenbat silaba sartu behar dituen. Manuel Lekuonaren ikuspegia aipatu zuten batzuek orduan, horrelako doinuetan silaba kopurua libre uztearen aldeko argudiotzat. Doinu horiek debekatzea proposatu zuenik ere izan zen bilera hartan, eta, oker ez bagaude, horixe izan zen azken erabakia.

Xabier Amurizarenak, berriz, teknika hutsetik gorago doa. Alderdi teknikoek bertso-eraikintzan nola erabili behar diren erakustea da Amurizaren ekarpena. Bertso eskolek erruz baliatu dute Amurizaren obra, bereziki haren *Hiztegi Errimatua*²³, *Hitzaren Kirol Nazionala*²⁴ eta *Zu ere bertsolari*²⁵.

Amurizaren ekarpena handia bada ere, bertso-eskolak eta eskola oro har bertsoaren eraikuntza mekanikotik gorako zerbait eskatzen ari dira gaur egun. Gure ikerlan honetan proposatzen den aplikazio didaktikoak eskaera horri erantzun nahi lioke, hain zuzen ere. 1999ko UEUk eman genion Amurizari geure metodoaren berri, eta hark oso interesgarri iritzi zion.

1.3. Bertsolaritza ikuspegi poetiko-erretorikotik aztertzen dituzten lanak

1.3.1. MANUEL LEKUONA

Manuel Lekuonarena da bertsolaritza ikuspegi poetiko-erretorikotik aztertu eta ulertzeko lehen saio aipagarria. Ahozko literatura bere osotasunean zuen Lekuona zaharrak aztergai, bertsolaritza ahozko literatura horren generotzat zuela. Lekuonak ahozko literaturaz idatzitakoak (asko hitzaldietako testu) haren idazlan guztien bildumako lehen liburukian²⁶ jasota daude.

Manuel Lekuonaren meriturik handienetakoa ahozko literaturaren balioa aurkitu eta aldarrikatu izana da. Literatura idatzitik hartutako inzipidez hartuz gero herri xehearen denborapasa baliogabea baino ez zena irizpide propioz juzkatzen eta apreziazten erakutsi zigun Lekuonak. Mylman Parryk Heroro ulertzeko eta aztertzeke ikuspegia guztiz aldatu zuen bezala, eta garai beretsuan, Manuel Lekuonak ahozko literaturaren balioez ohartarazi zuen orduko jende ikasia. Bergaran, Eusko Ikaskuntzako V Biltzarran, irakurri zuen hitzaldia (1930)²⁷, erabateko mugaria da ahozko euskal literaturaren historian.

Manuel Lekuonaren ekarpena haren iloba Juan Marik azaldua du egokiro²⁸. Lehenik eta behin, ahozkotasuna lantzeko ikerbide edo metodo propioa landu izana laudatzen dio ilobak osabari, arazoak osoz laudatu ere, gure ustez. Ahozko generoak metodologia propioz beharra, alegia. Juan Marik dioenez, 1930etik 1935a bitarteko obretan dago Manuel Lekuonaren teorien muina, behin-behineko formulazioan oraindik 1930ean, eta biribilago 1935ean.

Bergarako hitzaldia dateke, beraz, Manuel Lekuonaren teorien lehen formulazioa, eta litekeena da ordurako Jousseren obra ezagutzea. Nolanahi ere, 1935a arte ez da antropologo frantziarraren aipamen esplizitorik Manuel Lekuona-

17. ALTUNA, Patxi (1979), *Versificación de Deche pare. Métrica y pronunciación*, Bilbo, Mensajero.

18. LEKUONA, Manuel (1918), "Métrica vasca", (Gasteizko Apaigategian emandako hitzaldia, 1918), in LEKUONA, Manuel (1978), *Idazlan guztiak 1*, Gráficas ESEI-Seminario de Vitoria, 131-157 orr.

19. LEKUONA, Juan Mari (1994), "Euskal Estrofez", in LEKUONA, Juan Mari (1998), 640-670 orr; *Jatorrizko argitalpena* in Euskera, 39, (1994), 1.187-1.219 orr.

20. URKIZU, Patri (1993).

21. ESNAL, Pello (1994a).

22. LEKUONA, Manuel (1918), 147-148 orr.

23. AMURIZA (1981a).

24. AMURIZA (1981b).

25. AMURIZA (1982).

26. LEKUONA, Manuel (1978), *Idazlan guztiak I: Ahozko Literatura*, Tolosa, Kardaberaz bilduma.

27. LEKUONA, Manuel (1930), "La poesía popular vasca", Eusko Ikaskuntzaren V Biltzara, Bergara, in LEKUONA, Manuel (1978), *Idazlan guztiak 1*, 197-257. or.

28. LEKUONA, Juan Mari (1995a), "Manuel Lekuonaren Metodologia Ahozko Literaturaren Ikerketan", Euskera, 40, (1995), 109-122 orr., in LEKUONA, Juan Mari (1998), 23-37 orr; *Gure aipamenak, azken argitalpen horretatik*.

ren obran. Manuel Lekuonaren ekarpenik ezagunen eta aipatuena ere ordukoa da: koplazaharretako lotura ez-logikoei buruzko teoria, bai.

Manuel Lekuonaren bertsolaritzari buruzko ikuspegi osoa ezagutzeko, berriz, 1935a arte itxaron beharra dago, urte hartakoa baita haren *Literatura oral euskérica*, nahiz 1936an argitaratu zen²⁹. Marcel Jousseren aipamen esplizitua³⁰ dakar obra honek, ahozkoa aztertzeke metodo egoki eta propioa proposatzen duelarik. Bertsolaritzari dagokionez, ikuspegi sozio-politotik ekiten dio azterketari, prozeduren aldetik gero (atzekoz aurrerako teknika eta abar). Gorago aipatu ditugun metrikari buruzko kontsiderazioak datoz hurrengo, eta azkenik bertsolaritzaren ikuspegitik eginiko historia.

Jousseren eskutik ahozkotasanaren ezaugarriak errepasatu ondoren, euskal herri-literaturan ezaugarriok bete-betean agertzen direla frogatzea du asmo nagusi. Bat-batekotasuna guztiz aintzat hartzeko kontua dela dio Manuel Lekuonak (ez obra horretan bakarrik):

Desde luego, y como cosa que más poderosamente puede llamar la atención, en la literatura oral euskérica nos encontramos con la improvisación. Una improvisación perfecta de procedimiento por un lado y francamente espléndida de vida por otro, tanto por la difusión territorial del fenómeno, como por la consideración popular de que está rodeado el improvisador en cada región³¹.

Tamalez, teoria aplikatzerakoan nahasi azterzen ditu bat-bateko bertsoak eta bertso idatziak.

1.3.2. JOSE ARIZTIMUÑO, AITZOL

Manuel Lekuonaren ildo beretik, Aitzolek lan eskerga egin zuen bertsolaritza prestigiatzeko. Besteak beste, 1935 eta 1936ko txapelketeteko bultzatzaile eta antolatzaile nagusi izan zen. *Euzkadi* eta *El Día* egunkarietarako bere artikuluetan, berriz, sutsuki aldeztu zuen bertsolaritza. Artikuluok Aitzolen idazlan guztien bildumako 5. eta 6. liburukietan daude eskuragarri.³²

Manuel Lekuonak Bergarako hitzaldia eman zuen urte berean (1930), artikulua bat baino gehia-

29. LEKUONA, Manuel (1936), *Literatura oral euskérica*, Donostia, Euskaltzaleak, "Zabalkunde Sorta". Obra hori beste bitan ere argitaratu zuen Lekuonak, aldiko zerbait eransten ziola. Izenburua ere *Literatura oral vasca* jarri zion hurrengo bi argitalpenetan. Bigarrena, "Añamendi" bildumako 45. zenbakia da, 1964koa. Hirugarrena, berriz, guk erabili duguna, LEKUONA, Manuel (1978), *Idazlan guztiak 1*, 259-540 orr.

30. Zehazki: JOUSSE, Marcel (1925), *Le Style oral rythmique eta mnematechnique chez les Verbo-moteurs*, Paris, Beauchesne, "Archives de Philosophie".

31. LEKUONA, Manuel (1978), 270. or.

32. AITZOL (1987), *Idazlan guztiak 5. Jose Ariztimuño 'Aitzol'. Euskal Kultura Pizkundearen eta Kristau Gizartegintzaren Eragile I. eta II* Donostia, Erein.

go argitaratu zituen Aitzolek *Euzkadin*. Horietako baten izenburuak aski argi adierazten ditu orduko egoera eta Aitzolen kezka nagusia: "¿Desaparecerá el bertsolari? (Una inquietud...)", 1930ko maiatzaren seian *Euzkadin* argitaratua³³.

Beste artikulua batzuetan, berriz, garaian garaiko kronikari izatearen balioa aitortzen dio bertsolariari:

Si estos retazos, pocos y dispersos, nos revelan tan claramente los estados de opinión y las diversas fases sociales del pueblo, ¿qué no podríamos conocer si, cuidadosamente se hubiesen defendido, de la acción del tiempo y del olvido, crecido número de poesías de bertsolaris afamados!³⁴

Manuel Lekuonak bezala, Aitzolek ere kanpoko kultura handien adibidea jartzen du bertsolaritzaren pareko, bat-bateko sortzaileak Grezian eta bestetan estimazio handikoak zirela dio behin eta berriz. Maila estetikoraino darama Aitzolek bertsoaren apologia. Poesia idatzian buruz ari dela ere, herri literaturaren –bereziki koplazaharren– eredia du Aitzolek buruan, Espainiako gerra zibila hasi zen egunean bertan *Euzkadi* egunkarian argitaratu zen "Revasquización del pensamiento literario" izenburuko artikuluan argi eta garbi ikus daitekeenez:

¿Se ajustarán los excelentes poetas líricos de hoy a recoger el estilo privativo euskaldun tal y como apareció en los koplazaharrek, o hablan de modificarlo, para tal vez afinarlo y elevarlo de rango? ¿La técnica misma de la estética, con su doble concepción imaginativa y conceptiva en los cuatro versos de la estrofa, sería trasladada sin ser alterada a las modernas producciones poéticas? ¿Se guardaría siempre el orden inalterable y que a la idea o concepto amatorio, báquico, narrativo, etc., precediera la imagen o metáfora arrancada a la naturaleza rústica que rodea al euskaldun?³⁵

Aitzol bera, "euskal estilo"tzat duen hori, koplazaharrena, alegia, erabiltzearen aldeko da, eta bere garaiko olerkari gazteenak ikusten ditu horretan ausarten eta egokien. Iñaki Otamendi eta Angel de Sukia, Euskal Poesiaren VII eguneko irabazleen laudorioa honela egiten du Aitzolek:

Dejemos a un lado estos aciertos del pensamiento, de la fantasía y del criterio artístico y destaquemos como su mayor mérito el haber engarzado en estas poesías aquellas peculiares maneras de expresar la belleza que aprendieron en las viejas canciones³⁶.

33. AITZOL (1930), "¿Desaparecerá el bertsolari? Una inquietud...", *Euzkadi*, 1930-5-6, in AITZOL (1987), I, 19-21 orr.

34. AITZOL (1930), "El bertsolari. Su significación histórica y social", *Euzkadi*, 1930-4-5, in AITZOL (1987), I, 11. orr.

35. AITZOL (1936), "Revasquización del pensamiento literario", *Euzkadi*, 1936-7-18, in AITZOL (1987), II, 470. orr.

36. Ibídem, 471. orr.

Olerkari ezagunenak, ordea, ez ditu hain begi onez ikusten, “euskal estiloari” dagokionez behintzat, eta lumak ez dio dardar egiten poetarik sonatuenak kritikatzekoan:

Nuestros vates actuales, prestigios de nuestro renacimiento literario, no habían introducido hasta ahora en sus creaciones los destellos peculiares de la expresión poética euskaldun. Ni aun el mismo Lizardi, que tantos aciertos tuvo en su afán creador de abrir nuevos cauces al euskara literario y de inyectarle veneros del vigor genuino de nuestro idioma, consiguió ni apreciar ni expresar la imaginativa y la inspiración euskaldun según exigía el genio privativo de la belleza racial³⁷.

1.3.3. PIARRES LAFITTE

Piarres Lafittek lan handia egin zuen herri literaturaren alorrean. Bertsolaritzari dagokionez ekarpen teoriko handirik egin ez bazuen ere, ezin ahaztuzkoa da. Patri Urkizuk Euskal Klasikoen Bil-dumarako apailaturiko edizioan³⁸ biltzen dira Lafitteren idazlanik interesgarrienak.

Atalik interesgarriena, bere bitxian, “koblakari-
en legea” deritzon ataltxo da, gure ustez. Honako hau argitzea du xede nagusi:

...zerbait lege bazenetz koblakari berrien gidatze-ko, ala zerutikako dohain batek behar zituenetz nolazpait argitu, berotu eta kantarazi³⁹.

Erantzuna salomoniko samarra da:

Bi hitzez erran ditake koblakari bati baitezpada-ko zaizkiola jeinua eta jakitatea. Jeinua, jiteak emaiten du, beraz Jainkoaren ganik heldu da. Jakitatea, parte jitetik, parte ikhasmetik⁴⁰.

Jakitateari dagokiona jorratzen du gero Lafittek, bestea ez baitago nor beraren ez mundu honetako beste inoren esku. Gai onak eta gai txarrak bereiziz ekiten dio, eta lau baino ez ditu ontzat hartzen:

Bai, horiek dira lau gai nausienak: Jainkoa, munda, heriotzea, amodioa; eta erran ditake nolazpait sartzen ez diren kobla moltxo batek ez duela deusik baño. Ez dugu erraiten lauak sartu behar direla, ez; bainan bat ala bertzea. Herren eskasean, neurthitza mumitx-mumitza dago, batere hedadudarik gabe, her-tsi eta soil⁴¹.

Ondoren, “gaia mugatu beharra”, “pertsua” eta “kobla” jorratu ostean, “mintzaireaz” eta “edergai-luez” mintzo da:

Kobla ederren egiteko ez da aski geia eder izai-tea, pertsuak ongi eginak eta elgarri moldez kobla-tuak. Mintzairea gora atxiki behar du neurthizlariak. Lehenik hitz aphaal kazkarrak utz ditzala bertzen dako; gauza zikhinak ez ditu aiphatuko, edo neholaz aiphatu gabe ez baditu uzten ahal, polliki eta inguru-ka mintzatuko da hetaz⁴².

Mintzaira ere ez da, ordea, aski, entzulearen-gan eragingo duten bertsoak egiteko. Beste zerbait behar da:

Bainan orai artinoko kontseiluari jarraikiz ez uste izan Elissemboure bezanbat izanen zirela. Koblak ederki eginak izaiten ahal dira, batere ukhan gabe bihotza johan daukun su edo hats berezi hura.

Hats hori, jeinuak edo jiteak emaiten du; su hori, odolak phizten. Halere badira ederbide batzu denek baliatzekoak, ahal denean segunik.

Bata da koblaren azken pertsuari zirtoaren era-txikitzea.

(...)

Bertze ederbide bat da pertsuen argitzea eta phiztea, itzuli berri edo iduritzen batzueri esker:

Irudipenak jaunzten eta airatzen dute koblakal-dea, gogoetak hedatzen dituztelakotz geiaz haratago eta, alegia deus ez, hunkika bezala berriz hartara-tzen, nekhadurarik gabe eta, erran behar bada, atse-ginekin ere gehienetan⁴³.

1.3.4. JESUS MARI LEIZAOLA

“Lehendakari zaharra”k obra ugaria utzi zigun, gehiena erbestean egina, herri-literaturaz. Darabi-len aztergaiarekiko atxikimenduaz gainera, herri-po-esia aztertzerakoan testuinguruak duen garrantzia azpimarratu izana estimatzen diogu gehien Leizaola-ri. Alde horretatik, honako bi obrak zaizkigu inte-resgarrien: *La crónica en la poesía popular vasca*, batetik, eta *1808-1814 en la poesía popular vasca*, bestetik⁴⁴.

42. *Ibidem*, 93. or

43. *Ibidem*, 95-96 on.

44. LEIZAOLA, Jesus Mari (1961), *La crónica en la poesía popular vasca*, Buenos Aires, Ekin; eta LEIZAOLA, Jesus Mari (1965), *1808-1814 en la poesía popular vasca*, Buenos Aires, Ekin. Aipatu jatorrizko argitalpen horietan baino eskuragarriago daude bi obrak Leizaolaren idazlan guztien bilduman: LEIZAOLA, Jesus Mari (1981), *Obras completas de Jesús María de Leizaola*, Donostia, Sendoa. Hiru liburuki ditu argitalpenak, eta guk aipaturiko bi obrak bigarrenean daude: “La crónica en la poesía popular vasca”. 131-255 orrialdeetan, eta “1808-1814 en la poesía popular vasca”, berriz, 255-403 orr.

37. *Ibidem*, 470. or

38. LAFITTE, Piarres (1990), *Euskal Literaturaz*, Donostia, EEE-Erein.

39. LAFITTE, Piarres (1935), “Koblakari-
en legea”, Gure Herria, Baiona, 1935, in LAFITTE, Piarres (1990), *Euskal Literaturaz*, EEE-Erein, 88. or

40. *Ibidem*.

41. *Ibidem*, 8-96 orr.

Bertsoa komunikazio-tresna eraginkorra izan dela frogatzen ahalegintzen da Leizaola obrotan, nola gerrena hala eguneroko bizimoduarena. Alde horretatik, testuingurua eta testua maila bereko osagaitzat hartzen dituela esan daiteke, nahiz gero ez duen ondorio erretorikorik ateratzen. Bertsoa poesia hutsa baino gehiago dela ulertzeko oso baliagarria da, oro har, Leizaolaren obra:

Podemos decir, en suma, que la palabra no es considerada en la literatura de que se trata [bertso-koniketan, alegia] como un elemento estético sino como un instrumento necesario de declaración de ideas, de hechos o de sentimientos⁴⁵.

Ez dirudi oso urruti dabilenik horretan Leizaola guk hemen hartu dugun ikuspuntutik.

1.3.5. JORGE OTEIZA

Oteizak prestigio handia eman zion bertsolari-tzari, gainerako arteetako parametro estetiko baliaturik bertsolarien lanaren gaurkotasuna aldarrikatuz. Aldarrikapen horren formulaziorik biribile-na, *Quousque Tandem* liburuan dago⁴⁶. Juan Mari Lekuonak esplizitoki aitortzen du bertsolari-tzak Oteizari dion zorra. Aitorpen hori, gainera, ez du Lekuonak bidenabar, beste zerbaitetaz ari dela egiten. Aitzitik, artikulua oso bat eskaintzen dio Oteizari. Artikulu hori Juan Mari Lekuonak osaba Manueli eskaintzen dionaren segidan dator Juan Mariaren obren bilduman. Osabari eskainia eta Oteizarenak osatzen dute, hain zuzen, herri-literatura aztertze-ko metodologiari dagokion atala⁴⁷. Honela laburbiltzen du Lekuonak Oteizaren ekarpena:

Oteizaren ulerkuntza estetikoak umotasun jakin batera heltzen denean, autoreak bere ikuspegitik gure herri-poesia arakatzen du. Eta ekarri bikoitza datorrigu Jorgeren aldetik: bata, ikuspegi koherente eta modemoagoa eman nahi izatea gure ahozko poesiaren estiloari; eta biga, herri-poesian ere sendoturik ikustea euskal estiloari buruz autoreak mamitu-ko interpretazioak.

Lekuona Zahararen formulazioak ezeztuz, edota osatuz, egiten du Jorgek bere ikuspegien aurkezpe-na. Beronen irudiko, Lekuonak ez du aurkitu euskal poetaren estiloa hain zuzen jo dezakegun hura. Eta oralistaren espresioak zuzenduz gorpuztuko digu beraren ulerkuntza estetiko⁴⁸.

Oteizak bertsolarien estiloaz eta bertso-gintzaz dioenaren xehetasunak baino haren ikuspegi oro-

korra zaigu hemen baliagarriago. Azken batean, bertsoa bertso barmeko irizpidez aztertu behar dela ari da aldarrikatzen Oteiza, eta horretan gogaide gaitu:

Nuestro bertsolari (lo que de él aún nos queda) es el estilo más puro y de más emocionante y ejemplar claridad entre nosotros. Se trata en este ensayo de penetrar en su verdadera comprensión, porque no ha sido cabalmente entendido. Y en la clave de su estilo está la explicación de toda creación de estilo auténticamente vasco, de todo creador en nuestra historia y en la actualidad. La explicación y aun la esperanza (por su comprensión estética) de nuestra recuperación, de la de todos nosotros. Aun puedo decir más: que el vasco que no siente en su interior algo de lo que es el bertsolari, es un pobre hombre⁴⁹.

Berarena kendu behar izaten zaie, horretan eta bestetan, Oteizaren esanei. Baina badute esanok ohikotik gorako iradokitze indarrik; badute zerbait, pizgarri eta akuilu moduan eragiteko:

Esan dezakegu, Oteiza, ikuspegi jakingari bat eskainiz, gure ahozko literaturaren, eta bereiziki herri-poesiaren sendogari gertatu dela, eta aberasgari eta eragingari. Sendogari, gure urdunitasunak uxatuz; aberasgari, kultur ikuspegi bestelakoez hornituz, literatura egin, gozatu eta aztertzerakoan; eta eragingari ere bai, arteak ikerketarik asko duela erakutsi digulako, berritzera behartu gaituelako, eta gure intra-historiarekin harreman berriagoetan jarri gaituelako⁵⁰.

Manuel Lekuonak koplak zaharrei buruz esana bere egiten du Oteizak, Lekuonak berak baino urrutiago eramanez koplak barmeko lotura ez-logiko-arena. Koplak zaharretan erabiltzen den lotura hori lotura logikoa bezain zilegi iruditzen zaio Lekuonari. Oteizak, aldiz, zilegi ez ezik euskal estetikaren funtsa ikusten du gauzak era horretan lotzeko joera horretan. Lekuonak homologatu egin nahi zuen prozedura hori, baina hori egitean kultura greko-latinoaren menpeko agertzen da, Oteizaren ustez. Oriotarrak ez du euskal estiloaren zilegitasuna beste eredu-aren bilatzen, estilo horrek ez baitu kanpoko balioztapenen beharrik. Berez da balio-tsua, berez dago arteari –Oteizaren ustetan– gertzen zaion garabide bakarraren ildoan. Euskal estilo itxuraz inkoherente hori, beraz, interesgarriagoa da eta modemoagoa, artearen abangoardia horren ikuspegitik, arautegi greko-latinoaren arabera bako bako:

En la poesía y música actuales, en el estilo en el que ha entrado el arte contemporáneo, el orden cronológico y gramatical es sustituido por una sintaxis del sentido, que es el que establece la uni-

45. LEIZAOLA, Jesus Mari (1981), II, 269. or

46. OTEIZA, Jorge (1983 [1963]), *Quousque Tandem...!*, Donostia, Hordago, (4. argitalpena).

47. LEKUONA, Juan Mari (1998), "Herri-poesia eta Oteizaren ulerkuntza estetiko", 38-53 or: Artikulu hori, *Oteiza esteta y mitologizador vasco*, Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala, obran argitaratu zen estreineko (1986), 45-57 or:

48. *Ibidem*, 41. or

49. OTEIZA, Jorge (1983 [1963]), *Quousque Tandem...!*, Donostia, Hordago, (4. argitalpena), 9. or

50. LEKUONA, Juan Mari (1998), 52. or

dad rítmica y la lógica interna del poema vasco. La incoherencia lógica, tan frecuente en nuestra poesía, es el signo de su madurez intelectual. Primero el bertsolari piensa el final en donde ha de desembocar el río de su memoria y se sumerge en su imaginación interior dejándose llevar. La rima y la distancia espacial no tienen el mismo sentido que para el poeta castellano, son meras señales o anotaciones que mira de lejos cuando reaparece en la superficie para respirar. Vive su poesía como acción vital⁵¹.

Ezinezkoa zaigu Oteizaren hitz horietan Jon Sarasuarenen oihartzuna ez entzutea, bertsolariak, bat-bateko sorkeraz ari dela, honako hau dioelarik:

Gizakia sortzeko atakan jarri, eta estura horretan sortzen zaiona oso sakona izan zitekeek. Gauza landuek baditek beren eremua, gurea baino eremu zabalago eta garrantzitsuagoa. Sorkuntza landuan ere, bestalde, jakin nahi nitek gauzarik ederrenak, interesgarrienak, ez ote diren egiten bat-bateko sormen kolpeka, une jakin batean sortzaileari, tak, burura etortzen zaizkion kolpeetan. Musikan, literaturan... nik uste diat sortze prozesua kolpeka dela⁵².

Sarasuak espreski aipatzen du, gainera, Oteiza:

Oteiza eta teorikoren batzuek igual handietsi izan ditek, eta beste batzuek, berriz, gutxietsi egiten ditek, baina hor zagok hori⁵³.

1.3.6. SANTI ONAINDIA

Literaturaren genero guztiak jorratu ditu Santi Onaindiak, idatzizkoak zein ahozkoak. Ahozkoetan, haur jolasak eta haur kantak bereziki, baina baita bertsolaritza ere. Bertsolaritza antzinako kulturen testuinguruan kokatzea da, arlo horri dagokionez, Onaindiaren xede nagusia⁵⁴.

Onaindiaren Gure *bertsolariak* hori, euskal prosaren harribitxizta dugu, hain da haren idazkera eder, indartsu eta egoki. Edukiari gagozkiola, Manuel Lekuonaren jarraitzaile agertzen da, funtsezkoenean, Onaindia. Liburua, hala ere, bat-batekotasunaren aldeko paragrafo bikain batez hasten da, aipatu berri dugun Sarasuarenaren antz handia duen paragrafoa, bestalde. Hona hemen paragrafo hori, Onaindiaren prosa bikainaren erakusgarri:

Bat-bateko bertso-egiteak, bere zerizatean erroturik lez, ertz bi daukaz oso bederagarriak: bata, poesi-era errikoi onen antxiñakotasuna ta, bestea, bertsolariaren arima-ustutze bete-betea. Aspaldi bateko erririk geienak, izan be, euren asie-

ran baeben olako zer bait, gerora askok gizalege ta kultura obe batez omidurik euren ustez behintzat-albora itxia edo galdua. Gogo-lantze, kultura ori, baiña, guzur-oskolez jantzia dogu geienetan; ezta ots-otsekoa, burutik arakoa, barne-mandioan arretaz erabilli ta ausnartua baino. Etorri-ala esanak, edo arima barruan luze ausnartuak, agertu ta adierazten ete dausku obeto geure izanaren muiñean daroaguna?⁵⁵

Gainerakoan, esan bezala, Manuel Lekuonaren jarraitzaile ageri da Onaindia:

Azaldu daiguzan orain, M. Lekuona'ri galakoza-la, bertsolariaren buruzko bost gauza oneik: 1) eten-iduriko aria; 2) idurien bizkortasuna; 3) andik onako ibili urduria; 4) gomutamen euskorra, ta 5) doiñuaren apaina⁵⁶.

1.3.7. JEAN HARITSCHELHAR

Etxahunen obra inork ez bezala ezagutzen du euskaltzainen buruak. Barkoxeko bertsolariari buruzko haren⁵⁷ obra zinez miresgarria da.

Hala ere, guk hemen darabilgun asmorako, interesgarriago deritzogu bertsolaritzarekin lotura zuzenik ez duen Haritschelharren beste obra txikiago bati. Euskal paremiologiari buruzko obratxo batez⁵⁸ ari gara. Euskal esaera zaharretan dauden baliabide poetiko-erretorikoak aztertzen ditu egileak obra horretan, eta, nahiz deskribapen mailan geratzen den gehienetan, interesgarria da oso.

1.3.8. IÑAKI EIZMENDI, BASARRI

Basarri da bertsolaritzaz aipatzeko moduko hausnarketak argitaratu dituen lehen bertsolaria. Horretan –eta bestetan– aitzindari dute gaur egungo bertsolariek, Amuriza, Egaña eta Jon Sarasuak bereziki.

Juan Mari Lekuonak bikainki aztertua du Basarriren egitasmoa⁵⁹, eta guk bertsolaritzaren historia antolatzeke geure proposamena azaltzerakoan aztertuko ditugu Basarriren ekarpenak (ikus 7.5.3. epigrafea). Desagun, beraz, besterik gabe, Basarriren bertsolaritzari buruzko lan gehienak prentsan

55. *Ibidem*, 5. or

56. *Ibidem*, 206. or

57. HARITSCHELHAR, Jean (1970), *L'oeuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun*, Bilbo, Gráficas Elacuría.

58. HARITSCHELHAR, Jean (1992), "Parémiologie et mnémotechnie. L'exemple basque", *Bulletin du Musée Basque*, 133, 1992ko bigarren seiñilekoa.

59. LEKUONA, Juan Mari (1992), "Basarriren bertsolari proiektua", Iker VI, Euskaltzaindia, Bilbo, 283-296 orr; Eskuragamiago: LEKUONA, Juan Mari (1998), 364-378 orr; Azken argitalpen hori baliatu dugu guk gehienbat.

51. OTEIZA, Jorge (1983 [1963]), 129. or

52. Jon Sarasuak, in GARZIA, Joxerra (elkarrizketatzaile) (1998), 63. or

53. *Ibidem*.

54. ONAINDIA, Santi (1964), *Gure Bertsolariak*, Bilbo, Gráficas Bilbao.

argitaratuak direla, bertso-munduko gertakariren baten haritik jeneralean. Auspoa saileko 178. alean bilduta daude lanok⁶⁰.

Gaur egungo bertso-gintza (eta are bertsolari-tza) ulertzeko ezinbestekoa da Basarriren figura ezagutzea, bere bi alderdiekin. Bertsolari gisa, gerra ostean bertso-gintzaren euskari nagusia izan zelako, Uztapiderekin batera. Teoriko gisa, berriz, metodologia zehatzik gabe akaso, baina bere artea barru-barurutik ezagutzen zuelako, eta bere iritziak argi eta garbi azaltzen dituelako.

Bertsozaleek maiteago, kuttunago izango zuten agian Uztapide, baina gaur egungo bertsolari-tzak Basarriengan ditu bere sustrai-adarnik sendoenak.

1.3.9. JAKIN

Jakin aldizkariak bi ale monografiko eskeini dizkio bertsolari-tzari. Lehena 1980koa da, eta “Bertsolaritza” du izenburu⁶¹. Bertsolari-tzaren azterketa kualitatiboa dela esan genezake. Hainbat adituk bere iritzia azaltzen du bertsolari-tzaren beste hainbeste alderdiri buruz, orduko bertsolari-tzaren argazki halako bat osatuz. Interesgarriena, gure ustez, Joxe Azurmendiren “Bertsolaritza-estudiorako”⁶² da, eginen eta eginkizunen katalogo halako bat osatzen baitu filosofo zegamarrak:

Alabaina, ia dena egiteko daukagula, esan liteke, hemen ere. Xehetasunik edo garbitasunik nahi den orduko, ia dena oraindik inbestigatu gabe dagoela, aurkitzen da. Gure mintzamoldea bera, bertsolari-tzaz asko mintzatzen den orainaldi honetan, desegokia ageri da: bertsolari eskolak, belausal-diak... aipatzen dira, baina sentido garbi gabe⁶³.

Hala zioen Azurmendik 1980an. Hemeretzi urte pasa eta gauzak ez daude, bertsolari-tzaren ikerketari dagokionez, askoz ere argiago, eta ikerlan honetan bertan ere pairatu dugu behin eta berriz “desegokitasun” eta “sentido garbi”rik ez hori.

Aipagarria da, ale horretan bertan, Antton Haranburu eta Jose Mari Iriondoren txostena, “Bertsolaritza gaur eta bihar”⁶⁴, non, besteak beste, honako aurikuspen hau egiten zen, ikusiak ikusi aski zuzena gertatu dena:

Azkenik, biharko bertsolari-tza oraindik landu gabeko bide eta urratsetara zuzendu beharko litzateke, bertsolariak dituen errekurtsoez baliatzen jakinez

gero. Batipat irati, telebista eta gainerako komunikabideetan behar luke bere tokia bertsolariak, neurri batean berau dugulako gure lehen euskal kazetari eta informatzailea. Horrez gain, bertso-kaseteak eta diskak bertsolariaren zerbitzutan izango dira, liburu argitalpenekin batera.

Esanak esan, etorkizun zabal eta emankorra ikusten diogu biharko bertsolari-tzari eta badugu aurrerantzean ere “jaioko dira berriak” esateko itxaropen sendorik⁶⁵.

Jakin aldizkariaren bertsolari-tzari buruzko bigarren ale monografikoak, “Bertsolariak” izenburudunak⁶⁶, berriz, ikuspegi soziologikotik ekiten dio, eta oinarriko datuak eskaintzen ditu, nola bertsolari-tzei hala entzuleei buruz. Tamalez, horrelako lanek segida behar izaten dute bete-beteko balioa izatekotan. Hots: une jakin bateko –1987ko– bertsolari-tzaren argazki bikaina eskaintzen digu *Jakinek* ale horretan, baina, aldiaren behin antzeko lanak egin ezean, anekdota hutsean gera litezke tankera horretako lanok. Hamahiru urte joan dira geroztik, eta inork ez du pareko lanik egin, ez *Jakinek* berak ez beste. 1997a ez zen, alde horretatik, aukera txarra, hain efemeride eta urteurren zale izaki gure gizartea. Diakronian baino ez baitute horrelako lanek baliagarritasun bete.

Bat-bateko bertso-gintzan, testuinguruari testuari berari adinako garrantzia eman behar zaiola da geure ikerketa honetan hartu dugun ikuspuntuaren funtsa. Aldian aldiko testuinguruaren ezagutzarako, ordea, ezinbestekoak dira *Jakinek* ale horretan eskaintzen duenaren antzeko azterketak. Maiztasun jakin batez egin behar lirateke azterketok, aldiaren aldiko bertso-gintza taxuz ulertu ahal izateko. Adibide bat baino ez jartzearen, 1987an bertsolariaren %61,1ek “oinarriko heziketa edo gutxiago” zuen, eta goi mailako ikasketak eginikoen porzentaia 6,5a baino ez zen⁶⁷. Hamahiru urteren buruan, berriz, proportzio horiek batekoz beste daudela soma liteke intuitiboki, baina komeniko litzateke intuizio hori modu zehatzagoan egiaztatzea, bertsolariaren ikasketak mailak arrasto interesgarriak eman baititzake gaur egungo bertso-gintzari dagokionez.

Iritzi mailako daturik ere badakar aleak, interesgarri askorik. Hauek dira, adibidez, 1987ko bertsolariaren bertsolari-rik estimatuenak, hurrenez hurren: Uztapide (%15,8k aipatua), Lasarte (%13,2k), Basarri (%11,5k), Xalbador (%10,3k), Txirrita (%8,2k), Agirre (%5,3k), Lopategi (%4,8k), Lazkao Txiki (%4,6k), Lazkano (%3,1k), Xenpelar (%2,4k)⁶⁸.

Amuriza hamaikagarren ageri da zerrendan, nahiz eta “Orain edo lehen, noiz iruditzen zaizu hobeto egiten dela bertso-tan?” galderari %70,9k “orain hobeto” egiten dela erantzuten duten. Hari-

60. BASARRI (1984), *Bertsolaritza buruz*, Tolosa, Auspoa, 178.

61. *Jakin*, 14/ 15, “Bertsolaritza”, 1980ko apiril-iraila.

62. AZURMENDI, Joxe (1980).

63. *Ibidem*, 140. or.

64. HARANBURU, Antton eta IRIONDO, J.M. (1980) “Bertsolaritza gaur eta bihar”, in *Jakin*, 14-15, 1980ko apiril-iraila, 38-49 orr.

65. *Ibidem*, 43. or.

66. *Jakin*, 44, “Bertsolariak”, 1987ko uztail-iraila.

67. *Ibidem*, 109. or.

68. *Ibidem*, 131. or.

garria ere bada datu hori, Amuriza baita bertsogintza berriaren “aita”⁶⁹.

Kontuak kontu, premiazkoa deritzogu datuok aldian behin eguneratzeari, bertsogintzan, esan bezala, lehen mailako osagaia baita testuingurua.

Bi ale monografiko ezinbestekooz gainera, honako hau ere interesgarria da oso: *Jakin*, 75, 1993ko martxo-a-pirila. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak antolatutako “Bertsolamintza” jardunaldien txostenak biltzen ditu ale honek. Gure ikuspegitik bereziki interesgari: Andoni Egañaren “Egungo bertsolaritzaren ezaugarriak”⁷⁰, Luis Baraiazarraren “Hizkera bizia eta txukuna bertsolaritzan”⁷¹ eta Pello Esنالen “Bat-bateko bertsogintzaren didaktika”⁷².

Asmoari gagozkiola, Baraiazarrarena dateke gure ikuspegiarako interesgarrien. Hala ere, inzipide orokor jakinik gabe dihardu egileak, eta hizkera mailako arazoei ematen die, batez ere begia. Egileari berari arrazoa eman beste erremediarik ez dugu, beraz:

Adamik adar saltoka aritu ote naizen nago. Egitura edo tolestura sistematikorik gabeko lan bat burutu ote dudan susmoa ere badut. (...) Dena dela, hor-hemen barreiatutik, gauza probetxagarri asko izango diren ustetan, hementxe utziko nuke... erdi-poto eginik⁷³.

Pello Esnalena ere interesgari zaigu, gure ikerketa honetan aplikazio didaktiko bat ere proposatzen baita. Nolanahi ere, Esnalek bertsotan irakasteko metodoaz dihardu, eta guk hemen bertsoa ahozko komunikazio-gaitasuna lantzeko nola erabil daitekeen erakutsi nahi dugu. Guztiz bestelakoak dira, beraz, aplikazioak. Hala eta guztiz, jaso diezaiozun behintzat ateratzen dituen ondorioetako bat, guztiz bat baikatuz Esنالen ikuspegiarekin:

Hizkuntza eskuratzen den bezala eskuratzen da bertsotan egiteko gaitasuna⁷⁴.

Alegia, alderdi teknikoak hartu beharrean ardatz, ekintza komunikatiboa bere osotasunean hartzea proposatzen du Esnalek, eta horretan gogaide gaitu, nahiz bi kontu arras bestelakoz ari garen. Bertso eskolatan sarri nagusitzen den mekanizismo eta teknikakeriak gainditzeko bide egokia deritzogu Esنالenari, eta frogatu ere frogatua du Esnalek, Zarauzko bertso eskolan, fruitu ederrik eman dezakeela jardunbide horrek.

69. *Ibidem*, 134. or.

70. EGAÑA, Andoni (1993).

71. BARAIAZARRA, Luis (1993).

72. ESNAL, Pello, (1993).

73. BARAIAZARRA, Luis (1993), 81. or.

74. ESNAL, Pello (1993), 114. or.

1.3.10. BERTSOLARI

Bertsolari aldizkariak ekarpen handiak egin dizkio bertsolaritzari, nahiz ez den hori, zuzen-zuzen, bere xede nagusia. 1991ko maiatzean kaleratu zuen bere lehen alea, eta gerostik ez du etenik izan, nahiz gorabehera batzuk ibili dituen maiztasunean. Inoiz edo behin horirako joera leporatu bazaio ere, apenas dagoen alerik bere ekarpentxoak ez dakarrenik.

Bibliografiari dagokion atalean jari ditugu, “bertsolari” sarreran, ale monografikorik interesgarrienak. Bertsolaritzaren antzeko jardunen berri ezagutzeko ere iturri ezin hobea da aldizkaria. “Kanpoko inprobisadoreak” sarreran bildu ditugu lanon erreferentzia bibliografikoak.

1.3.11. FITO RODRIGUEZ

Guk dakigula, Fito Rodriguezena da EHUUn bertsolaritzaz irakurri den doktore-tesi bakarra.⁷⁵ Rodriguezen tesia landa-lanean oinarritzen da, hainbat bertsolarirekin eginiko elkarrizketek osatzen baitute narrazio-haria. Funtsean, bertsolaritza “pau-deia” moduko bat dela dio Rodriguezek, hitz horrek Jaegerrean⁷⁶ duen adieran. Uruti geratzen da, nolahi ere, gure asmo nagusitik, eta metodologikoki ere baditugu geure erreparoa.

1.3.12. JON KORTAZAR

Jon Kortazarrek, adeitasun handiz, berak Deustuko Unibertsitatean emaniko eskoletarako apunteak eskuratu zizkigun⁷⁷, eskuz idatziak eta, tamalez, argitaragabeak. Xenpelar, Etxahun eta Amurizaren bertsogintza aztertzen du Kortazarren apunteotan, eta merezi lukete apunteok noizbait argia ikustea. Poesia aztertzerakoan ohi duen gisa dihardu hiru bertsolarion bertsogintza aztertzen, egiturei ez ezik edukiei eta argudioei ere eskeintzen dielarik areta. Alegia, poetika hutsetik haratago doa Kortazarren ikuspegia, eta horretan behintzat zordun gatzazkiko alde edo moldez.

1.3.13. JUAN MARI LEKUONA

Biltze lanez ari ginela ere aipatu dugu Juan Mari Lekuona (5.1.3), eta han bertan esan dugu biltze lana baino areago dela maisu oiartzuarrarena. Han aipaturiko obrak hemen ere aipa genitzakeen, beraz.

Bildu eta sailkatu ez ezik, ordea, hainbat bertsolariaren bertsogintza aztertu du Juan Mari Lekuonak,

75. RODRIGUEZ, Fito (1991).

76. JAEGER, Werner (1981), *Pau-deia*: Los ideales de la cultura griega, Mexiko, F.C.E.

77. KORTAZAR, Jon (¿).

eta lan horiek gertatu zaizkigu, hain zuzen ere, baliagarrienak. Denak aipatzeak luze joko liguke, eta bi dira aipatu gabe inola ere ezin utz ditzakegunak. Lehena, “Basarien bertsolari-proiektua”⁷⁸ deritzena da. Bigarrenak, berriz, guretzat interesgarrienak, “Udarregi erretorikaren bidetik”⁷⁹ du izenburu.

Azken lan honen asmoa gure ikerlan honenetik oso kidekoa da. Izan ere:

... oso garbi dagoena da, bailarako bertso-zerbitzua berak [Udarregik] bete ohi zuela, maisutza bat egiten zuela orduko bertsolaritzan, jendearentzat atsegina zela eta bazuela aitoren bat, ohorezko itzal bat, inguruko artean eta harantzago ere bai. Gehiago oraindik, gaur egun ere bere memoria historikari eusten zaiola, berri herria hunkitzeraino. Eta xehetasun hauek guztiak tartean daudela, bultzaturik aurkitzen gara Udarregi aztertzerara, haren arrakasta zertan datzan zehaztera, haren bertsolari baliabideak arakatzera, haren eskema eta tropoak bildu, sailkatu eta balioztatzerara, zerbait jakingarri jasoko dugulakoan⁸⁰.

Guri ikerketa honi ekindakoan gertatu zitzaigun bezala, haridura puntu bat nabari da Lekuonaren hitzetan, Udarregiren bertsoen arakastak ikuspegi poetiko hutsetik nekez esplikatu baitaitezke. Izan ere, Udarregiren bertsogintza:

Ez da Bilintxen bertsogintza, irudimenez jantzia; ez da FM. Otañoren sentiberatasunekoak, euskara garbia bezain herrikoia erabiliz; ez da Iparragirere bezain unibertsala, beste herrialdeetako antzekoak, orduko europarren erromantizismoak hunkitua.

Besterik da Udarregiren emaitza poetikoa. Ezer tan nabarmentzen bada Udarregi, esaldietan da, sententzia moduko hizkerabide landu, tolestatu eta arrazoizkoan. Horregatik, usurbildarraren bertsogintza aztertzeke, metodorik egokiena iruditu zaigu esaldiak aztertzea, *erretorikak* eskaintzen *dizkigun baliabideak erabiliz*, aplikatuz, ikuskatuz⁸¹.

Gutziz bat etorri beste erremediorik ez dugu Lekuonak hor esanarekin, horixe baita gure ikerlan honen tesi nagusia: poetikatik erretorikara zabaldu behar dela ikuspegi, bertsogintza taxuz ulertuko bada.

Ikasle hasberriak maisuari zor dion begirune eta guzti, ordea, iruditzen zaigu Lekuonak ez duela aipu horretan hain modu enfatikoan aldamikatutako

ikuspegi erretorikaren ondorio guztiak ateratzen bere azterketetan. Aipua bera oximoron halako bat da, “Udarregiren emaitza poetikoa” hobeto ulertzeke heltzen baitio erretorikari.

Lehenago ere (1982) aipatua zuen Lekuonak erretorika, ez baita alferrik klasiko greko-latinoen ezagule handia. Hala, *Ahozko Euskal Literatura* deritzen obran, ataltxo bat eskaintzen dio teknika erretorikoari (2.1. atala), erretorikaren bost eginkizunak gogoratuz (*Inventio, dispositio, elocutio, actio, memoria*). Hori gogoratuz, honako hau dio:

Jendaurreko bertsolaria, poeta eta kantaria ezezik, hizlaria ere badela esan dugu gorago. Horregatik, bapateko ihardunak uki-ezinezkoa du erretorikaren teknika hau. Baina hau da harrigarria: plazan bertsotan ari denak eginkizun hauek guztiak –batez ere gela asmatzea, ordenu batetan jartzea eta esaera ederrez ematea–, tarterik gabe egin behar dituela, segudu batzuren barruan⁸².

Hori guztia aitorturik, ez dirudi gero bere azterketan ekintza erretorikaren bost eginkizunei jaramon bera egiten dienik, ez eta lehen hirurei ere. Batzuetan, bertsolaria aski poetikoa denean (Bilintx, Otaño, Xalbador...), *elocutio*ari ematen dio lehentasuna. Ikuspegi horrek aski etekin ematen ez duenean (Udarregiren kasuan, adibidez), poetikatik erretorikara jauzi egin beharra aldarrikatzen du. Esaldi edo sententzia solteen azterketara mugatzea, ordea, *elocutio*a eta *inventio*a mugatzea da (“usurbildarraren bertsogintza aztertzeke, metodorik egokiena iruditu zaigu esaldiak aztertzea”), gure ustez, sententziok bertso-berbaldiaren baitan duten egitekoaz honako hau baino ez baitu Lekuonak esaten:

Eta estrofagintza ere, esaldi zizelkatuak ongi pilatzean dago bere teknika eta bere bertso-legea, beste zangalatraurik gabe, esaldi estratoak pilatzen direla elkarren gainean, azkena gidari⁸³.

Hitz batez esateko, azterketa erretorikoa agintzen digu Lekuonak, baina aplikazioan ez du erretorika bere osoan hartzen. Udarregiri dagokionez, hustuketa-lan bikaina egiten du Lekuonak, haren sententziak, figurak eta tropoak atereaz. Hitzetan eskas, tropoetan eskasago, eta sententzietan bikain ateratzen da Udarregi azterketatik:

Horregatik, beronen [Udarregiren] bertsogintza balioztatu nahi bada, ezinbestekoa da sententzien erabilera azpimarratzea. Ezer bada-eta, esaera zaharren estiloa da bereziki usurbildarraren estiloa: arrazoizkoa, ongi teilatua, sakona, argia, eta akordatzeko erraza. Eta estrofagintza ere, esaldi zizelkatuak ongi pilatzean dago bere teknika eta bere bertso-legea, beste zangalatraurik gabe, esaldi estratoak pilatzen direla elkarren gainean, azkena gidari⁸⁴.

78. LEKUONA, Juan Mari (1992), “Basarien bertsolari proiektua”, Iker VI, Euskaltzaindia, Bilbo, 283-296 or: Eskuragariago: LEKUONA, Juan Mari (1998), 364-378 or: Azken argitalpen hori baliatu dugu guk aipuetarako.

79. LEKUONA, Juan Mari (1995b), “Udarregi erretorikaren ildotik”, in LEKUONA, Juan Mari (1998), 379-392 or: Jatorrizko argitalpena: *Bertsolari*, 20, Donostia, 44-51 or

80. LEKUONA, Juan Mari (1995b), 379-380 or

81. *Ibidem*, 382. or (Azpimarra gurea da).

82. LEKUONA, Juan Mari (1982), 125. or

83. LEKUONA, Juan Mari (1995b), 391. or

84. LEKUONA, Juan Mari (1995b), 391. or

Dispositiori dagozkion kontuak errazegi bildu izan dira orain arte, gure ustez, “bertsoaren amaierako teknika” horretara. Esan dezagun, hala ere, erretorikaren bost egitekoak (bereziki lehen hirurak: *inventio*, *dispositio*, *elocutio*) metodologikoki baino ez direla bereizgarriak. Jardun erretorikoan, bateratsu egiten dira urratsok. *Dispositio*arenak atzenuz, jardun erretorikoaren beraren alderdi funtsezko bat atzenuz da, beraz, eta azterketa erretorikoa herren geratzen.

Badirudi, beraz, Lekuonak ontzat ematen duela Udarregiren bertsogintza, nahiz poetikaren aldetik akatsak eta hutsuneak dituen (“Urria dela esan dugu Udarregi hitzen figuretan”⁸⁵, “Tropoen erabileran ikusten da hutsunerik nabariena Udarregiren bertsogintzan”⁸⁶):

Horregatik, ikuspegi honen barruan, bertsolari herritarra aipatzen dugu, bertsolari trebea sententzian, ez hainbeste tropoen erabileran⁸⁷.

Poetikatik erretorikara aldatu behar izan du ikuspegia, baina poetika du oraindik, alde edo molde, gogoan. Bestela, ez zitzaizkion “hutsunok” hutsune begitanduko. Udarregi gaur egun ere hunkigarri egiten dela aitortu du lanaren hasieran. Alegia, bere xede erretorikoa ondo betetzen du darabiltzan baliabideekin, eta, horrenbestez, bere estrategia erretorikoa egokia da aitortu behar genioke.

Ikerketa honetan garatu dugun ikuspegia garrantzean, beraz, Lekuonaren jarraitzaile eta ikasle ikusten dugu geure burua, bertsogintza aztertzeke ikuspegia poetikatik erretorikara aldatzeke ahalegina baino ez baita, azken batean, gure lan hau. Uste dugu maisuari fidelago gatzatzeke haren printzipioak geure eginez, haren aplikazio guztiak txalotuz eta itsu-itsuan onartuz baino. Lekuonak, oker ulertu ez badugu, “bertsolari batzuen” (eskolarik gabekoen, herrikoien) bertsogintza aztertzeke proposatzen du ikuspegi erretorikoa, besterik ezinean edo:

Nahiko zaila egiten da hasiera batean Udarregiren bertsogintzak duen meritua zertan datzan zehaztea. Eupeteko bat da ikerlearentzat Udarregiren bertsozko arauketa eta perzeptiba finkatzen hastea⁸⁸.

Guk, berriz, zera aldamikatu nahi dugu hemen: bat-bateko bertsoak –baina bertso guztiak: maila poetiko handikoak zein gainerakoak– aztertu eta ulertzeke ikuspegi egokiagoa dela erretorikarena poetikarena baino. Poetikatik egin diren azterketak, hori bai, baliagarriak dira ikuspegi erretorikotik ere, poetika ez baita, azken batean, erretorikaren sinekdokea baizik.

Beste horrenbeste gertatzen zaigu Bertsolarikaren Historia sailkatzeke Lekuonaren proposamenarekin. Inork ez bezala bereiztu ditu Lekuonak “jendaurreko bertsogintza” eta jendaurreko ez dena. Hala ere, bereizketa horren aurkakoa dela iruditzen zaigu dagoeneko kanonikoa bilakatu den haren proposamena. Izan ere, nahiz bat-bateko bertsogintzaren berezitasuna behin eta berriz aldarrikatzen duen, alde edo molde literaturaz idatziaz dagozkion irizpidez sailkatzen eta aldikatzen baitu Bertsolaritzaren Historia⁸⁹:

1. Erromantizismo-aurea (1800-1839).
2. Erromantizismoa (1839-1876).
3. Pizkunde-aurea (1876-1935).
4. Pizkundera (1935-1968).
5. Bertsolaritza soziala (1968-1977).

Sailkapen hori nahasi samarra iruditzen zaigu, gainera. Besteak beste, bi irizpide elkarrekin zerikusirik ez dutenen arabera egin dirudielako (lehen bi aldiak unibertsalak edo dira; azken hirurak, berriz, bertsolaritzari berari dagozkionak, egokiagoak, gure iritziz).

1.3.14. JUAN GARZIA

Bertsogintza klasikoaren eredutzat hartu ohi da Txiritaren bertsogintza, eta Juan Garziak bertsogintza horren klabeak ematen ditu Txiritari buruzko bere obran⁹⁰. Baliabide poetiko-erretorikoak bilatu eta sailkatze mugatu ordez, betetzen duten funtzioa bistaratzeko du xede Garziak bere obran. Txiritak (eta bertsolari klasikoek) grafikotasuna nola lortzen duten, enfasia nola bideratzen duten, nolako iruditeria darabiltzen, zertarako erabiltzen duten iruditeria hori... eta gisako auziei heltzen die Garziak, eta horretan jarraitzaile gaitu. Azterketa, ordea, testuan bertan agertzen da, eta testuinguruaren aipamenik ez da inoiz egiten. Azterketaren ardatz, bestalde, Txiritaren “Norteko Trenbideari” bertso papereko bertsoak hartzen ditu. Bertso ez bat-batekoak, beraz.

Baliabideak ulertzeke modu funtzional hori ez ezik, ateraldiari buruz dioena ere erruz baliatu dugu ikerketa honetan, gaur egungo bertsolarien “pindartasuna”ren nondik norakoak azaltzerakoan, batez ere (ikus 7.9.2.b epigrafea).

Nolanahi ere, ikerketan zehar behin eta berriz aipatzen dugunez obra hori, bego horrenbestean Juan Garziaren obra ezinbesteko horren aipamena.

85. *Ibidem*, 390. or.

86. *Ibidem*, 391. or.

87. *Ibidem*.

88. *Ibidem*, 379. or.

89. LEKUONA, Juan Mari (1982), 95-121 orrialdeetatik.

90. GARZIA, Juan (1997a), *Txiritaren Baratzeko Norteko Trenbidetik*, Irun, Alberdania.

1.3.15. XABIER AMURIZA

Xabier Amurizaren presentzia erabatekoa, guztizkoa da 1980z gerotiko bertsolaritzan, nola bertso-jardunean hala teorizazioan ere. Aipatuak ditugu bertsogintzaren alderdi teknikoei buruzko haren lan puntakoak (5.2.). Baita biltze lanei zegokien atalean ere (5.1.6.). Esana geratu da Amurizaren biltze lanak ez direla biltze lan huts, eta haren alderdi teknikoei buruzko lanak ez direla teknikari dagozkion alderdietan agortzen. Bi epigrafe horietan aipaturiko obrak hemen ere aipatzekoak dira, beraz, bertsogintza jardun erretoriko moduan ulertu ahal izateko arrasto asko eta asko ematen baititu Amurizak obrotan.

Horrez gainera, ordea, baditu Amurizak bertso-gintzaren alderdi erretorikoei propio eskainitako lan interesgarriak.

Denetan interesgarriena, gure ustez, bat-bateko bertso-plazei buruzkoa da⁹¹. Hasiera-hasieratik zehazten du Amurizak bere lanaren xedea:

Lan honen helburua bat bateko bertso-plazei buruz gogoeta bat egitea da. Bertso-plaza ezberdinak zehaztu, deskribatu, sailkatu. Haien ezaugarriak azaldu, eta oro har balietsi ere bai, alde onak, txarrak edo dudazkoak agertuz. Bide batez aipamen batzu egingo badira ere, lan honen helburua ez da aztertzea plaza bakoitzeko bertsogintzak nolakoa izan behar duen, saio librean gaia nola atera eta nola garatu behar den, saio gaidunetan gaiak nola jarri behar diren eta nolakoak izan behar duten, eta abar⁹².

Ikusten denez, bere lanari jartzen dizkion mugak hortik aurrera lan egiteko gomite ere badira: berak egingo ez dituen horiek noizbait norbaitek egitea komeni dela diosku, zeharretara, birritan txapel-dunak.

Lan horiek, gure ikuspegitik, garrantzia itzela du, hemen “inguru-egoera” deitu dugun hori –saioa bera, *performance*– hobeto ezagutzeko balio baitu. Bat-bateko bertsogintzaz soilik ari dela argi eta garbi utzi ondoren, bi sail handi bereizten ditu Amurizak:

Bat-bateko bertso saioak bi sail handitan bana daitezke: saio librea eta saio gaidunak. Saio libreak bertsolariak bere kabuz, dena beretik egiten duena da. Saio gaiduna bestek emandako gaiak erantzuten zaiena⁹³.

Areagoko xehetasunetan sartu gabe, hona hemen Amurizak sail bakoitzean bereizten dituen saio motak:

91. AMURIZA (1995a), “Bat-bateko bertso plazak”, *Bertsolari*, 18, 1995eko maiatza, 10-29 orr: Bertsozale Elkarteak antolatutako “Bertsolamintza II” jardunaldietarako txostena da honako hau.

92. *Ibidem*, 11. or.

93. *Ibidem*.

A) Saio libreak

1) Saio betegarriak. Herri kirolen ikuskizun bat, esaterako.

2) Saio aurkezleak. Aurrekoaren multzokoa. Ikuskizunen baten aurkezpen.

3) Saio anizkoitz baten atal. Bertsolariak bere txanda eta denbora dauka beste ekitaldien artean.

4) Ekitaldi bakarra edo independentea. Aurre edo oste hurbilean ezer ez daukan saioa.

5) Jai otorduak. Gehienez bazkariak edo afa-riak, baina badira gosariak eta luntzak ere. Motiboak: herri bazkaria, jubilatuen, elkarte edo txoko baten urteko eguna, ezkontza, kintoak..

6) Bertso afariak. Jende kopuru jakin samarra (40-100ekoak dira maizenak). Propio bertsoarako antolatutak.

7) Bestelakoak (mitin, hileta, ongietorri, omenaldi, inaugurazio, estreinetakoak).

B) Saio gaidunak

Lehenik eta behin, honako ohar hau egiten digu Amurizak:

Saio gaidunak saio libreetan aipatutako guztiak izan daitezke, lehen-bigarrenak eta zazpigarrena ezik, hots, saio betegarriak, saio aurkezleak eta okasioko interbentzio laburrak ezik. Beste laueta librean nahiz gaiak jarrita egin liteke, baita era mistoan ere, askotan egin ohi denez⁹⁴.

Hori argiturik, honako hauek bereizten ditu Amurizak, lehenengo laurak aurreko sailekoen izen bera dutela:

1) Saio anizkoitz baten atal. Bertso saioa beste zenbait ikuskizun edo entzunkizunen ondoren dago, programa orokor baten barruan.

2) Ekitaldi bakarra eta independentea. Librekoa bezala, baina gajartzaille eta guzti.

3) Jai otorduak. Librekoak bezala, baina gaiak emanda.

4) Bertso afariak. Gajartzaille baten agindura egiten direnean.

5) Bertso Jaialdiak. 4-8 bertsolari, gajartzaille, saio independentea. Guk hemen “ohiko jaialdi” deitu duguna. Txapelketetakoak ere hemen sartzekoak lirateke.

Dagoenaren errepasoa horrenbestean amaiturik, Amurizak bere proposamena egiten du: “saio integrala”:

94. *Ibidem*, 13. or.

Saio integrala zer litzatekeen? Oso sinplea: bertsolariak eurek dena egiten dutena, gajartze eta kantatze. Saio asko egiten da, bertsolari bat gajartzaile dela. Baina bertsolari hori saio horretan ez da bertsolari, hizlari bakarrik. Gai jartzailearen lan egiten du soilki. Nik diodan ereduan ez dago bertsolarietz beste inor saioan. Eurek kantatzen eta eurek gaiak jartzen dituzte⁹⁵.

Horrelako saio batzuk egin ere egin izan dira, ez asko. Aipagarriena, oso emaitza bikaina eman zuelako, Elkarrik Aretxabaletan antolatutakoa izan daiteke⁹⁶. Guk geuk, txostengile izan baikinena Bertsolamintzaren ekitaldi hartan, antzeko zerbaite proposatu genuen geure aldetik, nahiz itxuraz oso bestelakoa izan proposamena:

Gaur egungo jaialdi ereduak ez da ezinbestekoa. Elkarlan horrek [bertsolarien eta gajartzailearen artekoak] azterketa ekarri behar luke, eta azterketak bide berriak egiteko proposamenak. Gajartzaileak bertsolari jokatu behar duela esan dugu lehen. Bertsolariak, bestalde, nola-halako erantzukizuna hartu behar luke jaialdiaren diseinuan, gajartzaile jokatu. Guztiz norabide horretan doaz bertsolariak gajartzailearen lana beren artean banatuz egin diren saioak (Aretxabaletan, Elkarrik antolatutakoa, adibidez, 1994an⁹⁷).

Kontuak kontu, Amurizak bere txostenean egiten duen lana garrantzi handikoa da, eta merezi luke berak iradokitzen duen bidetik sakontzea. Alegia, bertso-plaza bakoitzari ze bertso-gintza dago-kion aztertzea. Azken batean, bertso-plazak aztertzean, guk hemen “inguru-egoera” deitu dugun honen muina aztertzen ari da Amuriza, horrexegatik sartu dugu lan hori bertsolariaren alderdi poetiko-erretorikotik kontsideratzen duten lanen artean. Bost hogereleko hitz potolorik erabili gabe bada ere, *performance* ari buruzko azterketak sakondu behar direla esaten ari zaigu Amuriza, azterketa hori nondik nora egin litekeen erakusten digularik bidenabar:

Sakontze lan hori egin gabe baitago, jaialdi eta txapelketetako saioei eman diegu guk arreta geure ikerketa honetan, nahiz inoiz bestelako saioen baten aipamena egin. Hor duke, bestela ere gutxi ez eta, ikerketa honek jarrai-bide interesgarria. Jaialdien aukera, ordea, ez da debaldekoa edo apeta hutsezkoa izan, gaur egungo bertsolariaren formato garrantzitsuena baita jaialdiaren (txapelketa bame), Amurizak berak argi eta garbi dioskunez:

... esan dezadan bertso jaialdiak, dauzkaten akats eta guzti ere, bertsolariaren adierazpide nagusia direla gaur egun. Entzuleentzat, bertso-

rientzat eta bertsoarentzat berarentzat bertso-plaza garrantzitsuena dira. Objektiboki hala da, neu horrelakoetan ez banabil ere⁹⁸. Eta ez nabil, garrantzitsuena dela aitortu arren, eredu estankatua dela uste dudalako⁹⁹.

Bertsolariaren bame-prozesuak ere badu bere garrantzia hemen hartu dugun ikuspegi erretorikotik. Amurizak maisuki azaldua du gaia entzun eta bertsoa kantatu bitartean bertsolariaren buruan egosten diren egiteko premiatsuen prozesu hori. Izen bereko artikuluxka bat badu *Jhkin*eko lehen monografikoan¹⁰⁰, nahiz eta ez den betekoa, berak aitortzen duenez:

Bukatzeke, lerro hauek ez dakit zuek nahi duzue-nerako askorik balio duten. Gauza hauek galdera gehiagori eta galdera konkretuei erantzunez behar-bada hobeto azalduko nituen. Elkarriketaz hobe izango zen, gauza pila bat esan eta gero handik hautatzeko. Nik nahiago nuke horrela, hemen jami ditudan ez baitatoz hain parera¹⁰¹.

Artikulu horretan biribildu gabe utzitakoa, ordea, zoragarriro azaltzen du Amurizak Antton Ezeizaren ikuska batean¹⁰², Bertsolariaren Historian Amurizari dagokion lekuan azalduko dugunez (7.7. atalean). 1980ko txapelketan “aita” gaia egokitu, eta bertsoak nola moldatu zituen azaltzen du, offfean, Amurizak ikuska horretan, hautatu zituen bideak eta bazterrean utzi zituenak, zehatz-mehatz.

1.3.16. ANDONI EGAÑA ETA JON SARASUA

Basari eta Amuriza salbu, gutxitan sartu izan dira bertsolariak beren jardunari buruzko teorizazio lanetan. Gaur egungo bertsolariak, ordea, inoiz baino ohartuago dihardute beren jardunari buruzko hausnarketan.

Hausnarketa honen fruiturik aipagarriena Sarasua eta Egañaren *Zozoak beleari* liburua da¹⁰³, alde askotatik paradigmatikoa iruditzen zaiguna. Batetik, teoriok saiakera literario moduan ematen dituztelako, horrek ezertarako errigorenik kentzen ez diela (gutunketa formatoan dago egituratua liburua).

98. Bolada hartan (1995), plaza libre eta saio integralan bakarrik parte hartzen zuen Amurizak, bere ideiekiko koherentzia handia bezain ezohikoa erakutsiz, koherentzia sakelean amaitzen baita jeneralean gure egunotan. Bertso-gintzan eta bertso-teorian ez ezik, horretan ere badukegu zer ikasia Amurizaren-gandik, haren ideiekin bat etorri zein ez.

99. AMURIZA (1995a), 26. or.

100. AMURIZA (1980), “Bertsolariaren bame-prozesua”, *Jhkin*, 14-15, 1980ko apirila-iraila, 134-137 orr.

101. *Ibidem*, 137. or.

102. EZEIZA, Antton, *18. ikuska*. Bertsolariak. Zinema-formatoan ezagutzen genuen, eta Xenpelar Dokumentazio Zentroan errepasatu ahal izan dugu, bideo formatoan.

103. EGAÑA eta SARASUA (1997).

95. *Ibidem*, 26. or.

96. Aretxabaleta, 1994ko maiatzaren 20a. Bertsolariak, honako hauek izan ziren: Mendizabal, Amuriza, Jon Sarasua eta Egaña. Saio haren laburpentxo bat: *Bapatean-94*, 123-132 orr.

97. GARZIA, Joxera (1995), 5-59 orr.

Bestetik, berriz, bertsolarien benetako kezken berri lehen eskutik, sortzaileen ikuspegitik, ezagutzeko aukera demaigulako liburu horrek. Argi eta garbi ikus daiteke zer zaien lehen mailako eta zer bigarren mailako. Guztiarekin ere, liburu hori behin eta berriz aipatzen dugu hemen, eta ez dugu haien ekarpenen zerrenda egingo.

Liburu haren hitzaurrean geniona errepikatu baino ez dugu, beraz, egingo:

Egokitu zaien aldi eta aldearekiko konpromezua da bertso gintza berriaren –eta liburu honen– eragile nagusia. Egokitu zaien testuinguruari egokitu beharraz diharduten pasarteak dira, nire ustez, liburuko birbilenak, eta asko da, bestelakoetan ere, edemik.

Pasarte-sail bakar bat aukeratu behar balitz, ordea, entzuleriari, auditorioari dagozkionen saila aukeratu nuke nik. Funtsezko gai guztiak bezala, nonahi agertzen dira hori buruzko kontsiderazioak¹⁰⁴.

Liburu hori ez ezik, Jon Sarasuarekin egin genuen elkarrizketa luzea¹⁰⁵ ere behin eta berriz aipatzen dugu ikerketa honetan. Izan ere, bertsolariak –eta ez bakarrik liburuetan– beren jardunari buruz diotena teorikoen esanen gainetik jartzen ahalagindu gara beti. Lan honen sarreran bertan aitortu dugunez, bertso saioen osteko solasak eta Bertsozale Elkarte bilerak izan dira guretzat bertso gintzari buruzko iturri “bibliografikorik” preziatuena, bibliografiari dagokion atalean aipatzen ez badira ere.

1.3.17. ETA BESTE

Propio bertsolarietaz ez diharduten liburu batzuk oso baliagarri gertatu zaizkigu. Gotzon Garatek erudizio handia azaltzen du atsotizei buruzko bere azterketan¹⁰⁶, nahiz baliabideen hustuketa baino ez duen egiten. Luis Mari Mujikarena¹⁰⁷, berriz, oso lan interesgarria da, besteak beste azterketa poetikoan testuinguruari ematen dion garrantziarengatik. Lastima da argitalpena, azalez eta diseinuaz hain dotore eta edukiz hain interesgarri izaki, latsa emateko moduko izatea, akats tipografiko eta bestelakoz goitik behera josia.

Joseba Zulaikak bertsolarietaren funtsezko kontu bat aipatu zuen bere liburu bere garaian sonatuarekin¹⁰⁸, gero Sarasuak eta Egañak sakonduko zituzten parametro eta auzi-moduak plazaratuz. Jokoaren paradigma albora utzi, eta bertsolarietaz –Zulaikaren ustez– beti bere izan

duen jolasarena hartu behar litzatekeela dio, labur bezain zakar esanik, Renoko irakasle itziartarrak.

Piarres Charritonek bertsoaren eta poesiaren arteko muga kontua aipatzen du, XIX mendeko Iparraldeko bertsolarietaz buruzko lan batean¹⁰⁹. XIX mendeko bertsolarietza zeharka baino ez bada ere gure aztergai, merezi du Charritonek sarreran berean dioena aipatzea:

Ez da, egia erran, beti erraz, bertsolarien eta olerkarien arteko bereizketa egitea, olerkariak ezagutu baititugu, hala nola Aresti, bertsolarien teknikaz baliatu direnak, eta bestalde, gero ta gehiago ikusten baititugu, olerkarien eskola ta maila duten bapateko bertsoen ontzaileak. Aspaldi du, bizkitartean bertsolariak eta olerkariak bereizten direla, euskal literaturaren historian¹¹⁰.

Ikusten ari garenez, bat-bateko bertsoaren generoarena ia aztertzaile guztiek aipatzen dute, alde edo moldez. Batzuetan, aski modu nahasian: arazoa hor dagoela aipatu, eta ez balego bezala aurrera egiteko, alegia. Esate baterako, honako honetan:

Normala denez, bertsolarietaz arte modura aintza ematen diona inprobisazioa da, txapelketa batean batez ere. Hala eta guztiz ere, bertso-paperekin balore izugarria dute, aspaldiko bertsolari handien ezagutza zehatz eta fidagarria ematen bait digute¹¹¹.

Rufino Iraola testuaren zientziatik hartutako parametroez baliatzen da egunkarietako bere kritikak egiteko¹¹². Gauza interesgarri asko esaten ditu, baina marko teoriko osoa falta dute kritikok, gure ustez, eta mekanikoei aplikatzen ditu sarritan. Bestelako lanetan, berriz, 1980ko *Jakin* monografikorako eginiko artikulua aipatuko genioke Iraolari. Besteak beste, honako hau dioelako, balantze modura:

Bertso guztiek dute bere textuingurua. Ze girtan kantatu den, zergatik, zein bertsolari laguni, ze jendearen aurrean, etabar. Hau da, bertso baten historia guztia eduki behar da kontutan bertsoaren mamiaz behar bezala jabetzeko eta beroren balioaz konturatzeko¹¹³.

Zailago zaigu juzkatzen asmo didaktiko agerikoz eginiko liburu bere singlean polit bat, zeinean, besteak beste, honako hau esaten den:

109. CHARRITON, Piarres (1990), “Iparraldeko bertsolari eta olerkariak XIX mendean”, in CHARRITON, ZELAIEIA, ASTIGARRAGA eta ELXEBARRIA (1990), *XIX mendeko olerki-bertso gintza*, Bilbo, Labayru, Gauontza sorta, 11~5 orr.

110. Ibidem, 11-12 orr.

111. CANTON, DIAZ eta DE PABLO (1992), *Euskal Herriko Bertsolariak*, Donostia, Kriselu, Gidak, 11. orr.

112. *El Diario Vasco* egunkarian argitaratu ditu artikulua eta kritika gehienak. Ikus, adibidez, IRAOLA, Rufino (1994).

113. IRAOLA, Rufino (1980), “Bertsoak ulertzeko”, in *Jakin*, 14-15, 1980ko apiril-iraila, 57. orr.

104. GARZIA, Joxerra (1997), “Hitzaurrea. Zozo-beleen izen-izanak”, in EGANA eta SARASUA (1997), 13. orr.

105. GARZIA, Joxerra (elkamizketatzaile) (1998), *Jon Sarasua bertso-ispiluan barrena*, Irun, Alberdania.

106. GARATE, Gotzon (1998).

107. MUJIKAK, Luis Mari (1985).

108. ZULAIKA, Joseba (1985).

Idazleak eta bertsolariak badute bai elkarren eite, hitzen erabilpen xamur edo zorrotzean, harmonia baten bila dabiltzanean edo erranaldia doi bat loreztatu nahiz... Hots ez ditzagun otoi nahas helbi-dea eta helburua, azala eta mamia, artixta eta obra... Forma edo axaleko presentziaren balioa gutsietsi gabe eiki, hori ere guziz garrantzitsua delakotz hemen¹¹⁴.

Bertsoak epaitzeko irizpideei buruzko txostene-tan¹¹⁵ ere ez dugu ondo oinarritutako marko teorikoren baten arrastorik aurkitu, elkarren artean zer ikusirik ez ditzuten irizpidez osatutako collage halako bat dirudite areago beste ezer baino.

Hemen landu den ikuspegia, berriz, 1997ko txapelketako saioen kritika egiteko erabili genituen estreinekoz, Euskaldunon Egunkarian¹¹⁶, nahiz artean gauza asko eta asko erdikusi baino ez genituen egiten. Egia esan, kritika lan horrek abegi ona izan zuen bertsolarien artean, eta, bestalde, guri ere dezente lagundu zigun kontuak argitzen.

3. EGINKIZUN GERATZEN DIRENAK

Geure iker-alorrean aurrera egin ahala, jorratu beharreko lur sailak ikusten genituen etengabe, zabaldu uste dugun ildo nagusiaren ezker-eskuin. Denak ezin, eta premia-zkoenak iruditzen zaizkiguna aipatuko ditugu segidan.

3.1. Bertso-azterketan

1) Baliabide poetiko, erretoriko eta dialektikoak zabalako eta zehazkiago aztertu eta sailkatu, komunikaziorako tresna diren aldetik, beti ere.

2) Ohiko jaialdiez eta txapelketez bestelako beste bertso-plazetako bertsogintza aztertu.

3) Bertsolari bakoitzaren bertsokera eta estiloa aztertu, bakoitzak darabiltzan baliabide eta estrategia erretorikoen arabera.

3.2. Bat-bateko bertsogintzaren historian

1) 1960a baino lehenagoko bat-bateko bertsokorpusa bildu eta osatu, bertso idatziak albora utzita.

2) Aldian aldiko inguru-testuaren argazki halako bat egin, maiztasun jakin batekin. *Akin* aldizkariak 1987an egin zuena izan liteke eredugarri. Hamar urtez behingoa izan liteke maiztasun egokia.

3) Bat-bateko bertso-testuen transkripziorako irizpideak behin-betiko finkatu. Irizpide okerrak hartunik ere, hobe da irizpide oker bateratuak erabiltzea, aldi berean lauzpabost sistema on baina diferente erabiltzea baino. Teknologia berrietan ezer egingo bada, ezinbestekoa da lan hori lehenbailehen ekitea.

4) Bertsolaritzaren historia osoa, bat-bateko bertsoak eta bertso idatzien adarrak ondo bereiz-tuz, ez bakarrik sailkapenetan, baizik eta baita kritika eta iruzkinetan ere.

114. IAKA, MIHURA, SARASUA eta SOULE (1998), *Bertsolarien artea. Bertsularitza zer den jakiteko*, Baiona, Imprimerie du Labourd, 104. or

115. "Bertsoa epaitzeko irizpideak" (1998), in *Txapelketa Nagusia Eztabaidan*, Donostia, EHBE. (Eztabaidarako txosten argitaragabea), 5. eranskina, 46-54 orr

116. GARZIA, Joxerra (1997), *Txapelketa nagusiko saioen kritikak*, *Euskaldunon Egunkaria*, 1997ko Urria-Abendua, asteartero.